



## Eskola Kirola - 2017-2018rako lehiaketa araudia

# PADELA

### 1. EGOITZAK

Eskola jardunaldi bakoitza egiteko egoitzak/instalazioak, klubak eta egunak Arabako Padel Federazioak erabakiko ditu, eragindako klubaren adostasunarekin.

### 2. ORDUTEGIAK

2.1. Jardunaldiak, ahal denaren neurrian, larunbat edota igandeetan egingo dira.

2.2. Eskola jardunaldia hartzen duen egoitza, instalazio edo klubak jardunaldi hori jokatzeko behar adina ordu utzi beharko du.

### 3. ADINAK eta PARTE-HARTZE KATEGORIAK

Kategoriak lehiaketa anizkunen formatukoak izango dira, ondoren azaltzen den bezala zehaztuta:

- **PADEL TOPAKETA- Jaioturteak: 2010-2011**
- **SUB 10 - Jaioturteak: 2008-2009 (mutilak, neskak eta mistoak)**
- **SUB 13 - Jaioturteak: 2005-2006-2007 (mutilak eta neskak)**
- **SUB 16 - Jaioturteak: 2002-2003-2004 (mutilak eta neskak)**

### 4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

4.1. Honako hauek parte har dezakete Arabako eskola zirkuituan: edozein kirol erakunde, baldin eta kategoria bakoitzerako ezarritako baldintzak bete eta eskola kirolean izena eman badu, bai eta erakunde bakoitzeko kirolariak ere, dagokien eskola lizentzia tramitatu badute.

4.2. Ikasle guztiak beren adinaren arabera dagokien kategorian lehiatuko dira. APFren Eskola Kiroleko koordinazioak erabakiko du zein eskola ume lehiatuko diren beste kategoria batean, betiere eskola meek Arabako Foru Aldundiak ezarritako balioak betez egin ahal izateko eskola jarduerara. Eta nabarmenduta parte hartzea eta kirolaren balioak lortzea dela kasu guztietan xede nagusia, lehiaketaren gainetik.

### 5. LEHIAKETAKO BALDINTZAK

- a) INSTALAZIOAK eta MATERIALA
  - Lehiaketa etxean hartzen duen klubak, eskola kiroleko jardunaldia ongi jokatzeko nahiko diren instalazioak utzi beharko ditu.
  - Federazioak berak jarriko ditu bolak.
  - Klubak 2 teknikari jarriko ditu lehiaketa kudeatzeko.
  - Federazioak gainerako material nahiz giza baliabideak jarriko ditu.
- b) LEHIAKETAREN KOORDINATZAILEA
  - Federazioak 2017-2018ko eskola zirkuituaren koordinatzailea izendatuko du.



- c) PARTE-HARTZAILEEN JANTZIAK
  - Parte hartzen duen bikote bakoitza antzeko jantziekin jokatzeko saiatu beharko da.
- d) EMAITZAK JAKINARAZTEA
  - Emaitzak behar den bezala jakinarazi eta landuko dira zirkuituaren koordinatzailearen bitartez.
- e) LEHIAKETAKO EGUTEGIAREN ALDAKETAK
  - Lehiaketako egutegian gertatzen den edozein gorabehera edo aldaketa behar adina denbora lehenago jakinaraziko da.
- f) BIKOTEEN ERAKETA
  - Bikote bakoitzak 2 proba irabazten baditu, ezingo da bikote bezala lehiatu denboraldiko gainerako partidetan, eta beste jokalaririk batzuk bilatu beharko dituzte haiekin jokatzeko.
  - Koordinatzaileak une orotan zainduko du lehiaketaren garapen egokia eta kategoria desberdinetako jokalariren bilakaera.
  - Koordinatzaileak sar dezake jokalaria adinez ez dagokion bestelako kategoria batean, ebaluazio tekniko bat egin ondoren. Hori justifikatu egingo da beti, eskola kirolaren helburuak eta filosofia betetzeko helburua gordetzearren..

## 6. LEHIAKETAKO ARAUTEGI OROKORRA. PUNTUAZIO SISTEMA

Jardunaldi eta kategoria bakoitzerako ondoko puntuazio sistema hau dago aurreikusita, baina aldatu ahal izango da planifikatutako jardunaldian zehar lehiaketa bukatzeko behar izanez gero. Aldaketa horien berri emango zaie klub bakoitzaren arduradunei.

- **PADEL TOPAKETA**

Lehiarik gabeko joko baldintzatu eta gidatua, zirkuituaren koordinatzaileak eta klubeko teknikariek gidatua eta babestua.
- **SUB 10 MISTOA**

Set bat jokatu da, 2na hasita
- **SUB 13 (Mutilak eta Neskak)**

Set bat (6 joko) urrezko puntuaz.
- **SUB 16 (Mutilak eta Neskak)**

2 setetako onenari, tie-breakaz horietan guztietan, eta "abantailarik ez" sistemarekin (urrezko puntua)  
Set banako berdinketarik izatekotan, 10 punturako super tie-break bat jokatu da .

## 7. IZENA EMATEA

Jokalariek Arabako Padel Federazioaren web sistemaren bitartez emango dute izena, banan-banan. Klub bakoitzeko eskola kirolaren arduradunek eratu beharko dituzte jokalaririk bikoteak web sistema horren bitartez.

Izena emateko 2 epe ezarriko dira, bata hasierakoa, eskola umeen euren izena emateko. Eta bigarren epea jokalariren izena emateko, klub bakoitzaren arduradunentzat.



## 8. SAILKAPENAK

Jardunaldia egin ondorengo astean, jardunaldiko emaitza taulak argitaratuko dira FAP/APF web orrian ([www.alavesapadel.com](http://www.alavesapadel.com)). Kategoría bakoitzeko sailkapenak ez dira argitaratuko eta federazioaren barruan kontrolatuko dira taulak kudeatzeko.

Padel Topaketa kategorian ez da egingo sailkapenik.

Proba bakoitzeko puntuazioa ondoko hau izango da:

| Kategoria     | Puntuak |
|---------------|---------|
| Txapelduna    | 200     |
| Finalista     | 170     |
| Erdifinalista | 140     |
| 1/4           | 110     |
| 1/8           | 80      |
| 1/16          | 60      |
| 1/32          | 30      |

Igarotako itzuli bakoitzeko 5 kontsolamendu puntu emango dira.

Eskola zirkuitua bukatuta, sub-16ko sailkapeneko bi jokalarí hoberenek, bai nesken kategorian bai mutilen kategorian, plaza izango dute Arabako eskola selekzioarekin Euskadiko Eskolarteko 2018ko Jokoetan lehiatzeko.

Beste 2 plazak teknikarien erabakiz esleituko dira.

## 9. ESKOLA KIROLEKO 2017-2018KO LIZENTZIAK IZAPIDETZEA

Eskola zirkuituan parte hartu nahi duten erakunde edo klub guztiek programa honetarako izena eman beharko dute Arabako Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Sailean.

## 10. ERAKUNDE EDO KLUBAK IZENA EMATEKO ORRIA

Eskola kiroleko programan sartu nahi duten erakunde edo klub guztiek hala adierazi beharko dute erakunde edo klubak izena emateko prestatutako orriaren bidez. Orri hori Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan izapidetu beharko da.

## 11. LIZENTZIAK IZAPIDETZEA

Lizentziak Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan izapidetuko dira eta, izapidetuta gero, haien kopia aurkeztu beharko da Arabako Padel Federazioan, horren sistema informatikoan balidatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza baita gero eskola lehiaketarako izena eman ahal izateko.

## 12. DIZIPLINA ARAUTEGIA

Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa, aplikatuko da.



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
▶

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

### **13. MASTERRA**

Masterrean norgehiagoka aritzeko, kategoria bakoitzean ondoen sailkatu diren 8 gizonezkoak eta 8 emakumezkoak sailkatuko dira.

Sub 10 kategoria mistoan, izena eman duten guztiak sailkatuko dira.

Bikoteak osatzeko era: sailkapeneko 1.ak eta 8.ak bikote bat osatuko dute, 2.ak eta 7.ak beste bat, eta horrela jarraian.

**Arautegi honetan aurreikusita ez dagoen guztia uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, arautuko du eta, dekretu horrek arautzen ez duen guztia, Arabako Padel Federazioaren arautegi orokorrak.**